


# Lanbide Heziketarako materiala euskaratzen

Lanbide Heziketarako euskal ikasmaterialgintza sustatze aldera, Hezkuntza, **Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte eta Erakunde Harremanetarako Departamenduak Lanbide Ekimena** proiektuari diruz laguntzeko konpromisoa hartu zuten, **Laneki Elkartea**rekin sinatutako hitzarmenen bidez.

Alor horretan zegoen ikasmaterial-gabeziaren jakitun, Ikaslan Gipuzkoa, Ikaslan Araba eta Ikaslan Bizkaia (Lanbide Heziketako ikastetxe publikoen elkarteak) eta Hetel Elkarteek Laneki Elkartea sortu eta Lanbide Ekimena proiektua jarri zuten abian 2001. urtean, helburu hau zutela: **Lanbide Heziketarako materialak euskaratu eta erabiltzaileen eskura jartzea, Interneten, formatu elektronikoan.**

Langintzaren tamaina ikusita, urte anitzetarako proiektua behar zuen izan Lanbide Ekimenak, ezinbestean. Hori dela eta, ordudanik urtero segida izan du, helburua lanbide-arlo guztien beharrak asetzea baita.

**DATUAK:**

**- Finantziatzio iturriak:**
Eusko Jaurlaritza > Gipuzkoako Foru Aldundia.
**- Elkarkideak:**
Ikaslan Araba > Ikaslan Bizkaia > Ikaslan Gipuzkoa > Hetel.
**- Lanekik prestatutako materiala: 573**
**- Jakinbai.com-en dagoen materiala: 640**
**- Jakinbai.com-en erregistratutako rabiltzaile kopurua: 4419**
**- Itzulpen memorietatik → termino hautagaien bikote elebidunak: 239.567**
**- Hiztegirako kontzeptu kopurua: 15.000**
**- Webgunea (2009ko urtarrilaren 1tik abenduaren 31era)**
. Bisitak: 21.366
. Bisitatutako orri kopurua: 227.581
. Erabiltzaileak: 12.366

# Traduciendo material de FP al euskara

A fin de impulsar la producción de material para la Formación Profesional en euskara, el **Departamento de Educación, Universidades e Investigación y el Departamento para las Relaciones Sociales e Institucionales de la Diputación Foral de Gipuzkoa** asumieron el compromiso de subvencionar del proyecto Lanbide Ekimena, a través del convenio firmado con la asociación Laneki.

En 2001 las asociaciones Ikaslan Gipuzkoa, Ikaslan Araba, Ikaslan Bizkaia (asociaciones de centros públicos de Formación Profesional) y Hetel, conscientes de la escasez de materiales existente en este ámbito, crearon Laneki y pusieron en marcha el proceso Lanbide Ekimena, con el objetivo de **traducir al euskara los materiales para la Formación Profesional existentes y ponerlos a disposición de los usuarios, tanto en Internet como en formato electrónico.**

Vista la magnitud de la tarea, estaba claro que el proyecto Lanbide Ekimena iba a durar varios años, por lo que desde entonces se le dio continuidad año tras año para así poder llegar a cubrir las necesidades de todas las familias profesionales.

**DATOS:**

**- Fuentes de financiación:**
Gobierno Vasco > Diputación Foral de Gipuzkoa.
**- Socios:**
Ikaslan Araba > Ikaslan Bizkaia > Ikaslan Gipuzkoa > Hetel.
**- Material preparado por Laneki: 573**
**- Material existente en jakinbai.com: 640**
**- Usuarios registrados en jakinbai.com: 4.419**
**- En memorias de traducción → parejas bilingües de candidatos a términos: 239.567**
**- Número de conceptos para el diccionario: 15.000**
**- Página web (del 1 de enero al 31 de diciembre del 2009):**
. Visitas: 21.366
. Número de páginas visitadas: 227.581
. Usuarios: 12.366

## Lanbide Heziketarako hiztegia. **www.jakinbai.com/lanbideki/hiztegia**



Lanbide Ekimena proiektuko material elebidunetatik abiatuta gauzatu da hiztegia. Interneten doan kontsulta daiteke, eta erabiltzaile ororen esku dago: teknikari, irakasle, ikasle, itzultzaile eta, oro har, herritarren esku.

Elhuyar Fundazioak garatutako ELexBI tresna **(http://www.elhuyar.org/hizkuntza-zerbitzuak/EU/ElexBI)** oinarritzat duen Itzulterm zerbitzuaren bidez **(http://www.itzulterm.elhuyar.org/)**, Lanbide Ekimeneko material batzuetako lexiko elebiduna erauzi da automatikoki, familiaka. Ondoren, erauzketa automatikoaren emaitza hori eskuz landu da, familia bakoitzeko terminologia hautatzeko.

Hiztegiak Lanbide Ekimeneko materialari buruzko askotariko informazioa eskaintzen du: gaztelania-euskara termino-bikoteak, horien sinonimoak, eta termino-bikoteak agertzen diren testuinguru elebidunak. Horrekin batera, termino-bikote bakoitza Lanbide Ekimeneko zein familiatan eta materialetan ageri den adierazten da, eta, orobat, testuinguru elebidun bakoitzak Lanbide Ekimeneko materialaren Interneteko helbidearen esteka du.

Interneteko kontsulta-sistemak aukera ematen dio erabiltzaileari bilaketa zenbait irizpideren arabera egiteko. Esaterako, termino jakin bat termino-bilduman edo testuetan bila daiteke, hiztegi osoan edo familia jakin batean.



# IKASLAN - CMA 64

## Erakundeek lanbide heziketako lankidetza programa bat hasi dute

## Inician un programa de cooperación en la formación profesional



**IKASLANEK, HEZKUNTZA SAILAK ETA CHAMBRE DE MÉTIERS ET DE L´ARTISANAT DES PIRENÉES ATLANTIQUES ERAKUNDEAK IZANDAKO HARREMANEI ESKER, MUGAZ BESTALDEKO LANBIDE HEZIKETAREN ANTOLAKETA, PEDAGOGIA ETA KALITATE PROGRAMA GARATU DA, LANBIDE HEZIKETA ARAUTUAN ETA ETENGABEAN LANKIDETZA ESPARRU BATERATUA SORTZEKO.**

LOS CONTACTOS ENTRE IKASLAN, CON EL APOYO DEL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN Y LA CHAMBRE DE MÉTIERS ET DE L´ARTISANAT DES PIRENÉES ATLANTIQUES HAN DADO COMO FRUTO EL DESARROLLO DEL PROYECTO **ORGANIZACIÓN, PEDAGOGÍA Y CALIDAD DE LA FORMACIÓN PROFESIONAL TRANSFRONTERIZA** CON EL OBJETIVO GLOBAL DE CREAR UN MARCO DE COOPERACIÓN EN MATERIA DE FORMACIÓN PROFESIONAL REGLADA Y CONTINUA.

Paueko eta Baionako CMAko irakasleek hartuko dute parte proiektu handi horretan; baita Errenteriako Don Bosco BHI, Leioako Ostalaritza Eskolako eta Zarautzeko Monte Albertia BHI zentro publikoetako Lanbide Heziketako hezitzaileek ere, Automobilgintzako, Ostalaritzako eta Ile-apainketako heziketa-zikloetakoek, hurrenez hurren.

2008-09 ikasturtean eginiko saioen ostean, epe ertainerako helburu hauek finkatu ziren:

**- Hitzarmena sinatzen duten erakundeetako ikasleak, irakasleak eta administrazio-langileak trukatzeko programak garatzea.**

**- Zentroak egoki kudeatzeko ereduetan, ikaskuntza garatzeko prozesuetan eta ikaskuntza-irakaskuntza prozesuetako metodologietan arrakasta izan duten ekintzak trukatzea.**

En este ambicioso proyecto participan profesores de la CMA de Pau y Baiona, así como formadores de los tres centros públicos de Formación Profesional de IES Don Bosco de Errenteria, la Escuela de Hostelería de Leioa y el IES Monte Albertia de Zarautz, de los ciclos formativos de Automoción, Hostelería y Peluquería, respectivamente.

Tras las sesiones iniciadas el pasado curso 2008-09, se establecieron los siguientes objetivos a medio plazo:

- Desarrollar programas de intercambio de alumnos, profesores y personal administrativo pertenecientes a las instituciones firmantes.

- Realizar intercambios de buenas prácticas en los modelos de gestión de los centros, en el desarrollo del emprendizaje y las metodologías de los procesos de enseñanza-aprendizaje.